

## **ERNAROA, 3 ZN.**

(Euskal Historiazko Aldizkaria)

Deustuko Unibertsitatean argitaratzen da, Euskal Historiazko Aldizkaria eta Unibertsitate hortako Arte, Geografia eta Euskal Herriko Historia Mintegiaren ardurapean dago. Orain artean 3 ale argitaratu izan dira, esku artean darabildan hauxe 3., hain zuzen ere. Lehenbiziko urtean ezarri zen aldizkatasunari eutsi egiten zaio. Azken ale hau 1986ko azarokoa da.

Argitaralpenaren hasera batetan esaten zenez, bere helburu nagusien artean hau du batipat: Mari Angeles Larrearen gidaritzapean dabiltzan ikerlari gazteen lanak kaleratzea, baina ez da hor mugatzen, beste lanen batzuk ere jasotzen bait ditu.

Zazpi euskal ikerlariren lanak dakartza ale honek; aurkibideari begira hasterakoan, lehendik ahalegin eta lan ugarien bidea daramatenen aldamean, euskal historiografiaren alorrean finkatzen ari zaizkugun ikerlari gazteen izenak aurki ditzakegu. Sanchez Granjel Doktore, euskal medizinarene historia-lari saiatuak eta Juan Garmendia etnografo ezagunak ez dute engararik Juan Gracia irakaslearekin edo lizentziatu berriak diren Angel de Miguel edo Felipe Ramosekin batera agertzeko.

Argitaralpena aurreko aleetan bezalatsu, berrehun orrialderen inguruan dabil, offsetean eta letra aski txikiz idatzia. Lanok argitaratzerakoan erabiltzen den hizkuntzak ohartxo bat merezi du; nahiz eta gehienak gaztelerez etorri beti, bada bat euskara hutsez egina ere, gai espezializatueterako ezarri den elebitasun eredu biziaren ezaugarri. Gaztelereaz idatzitako lanek euskal laburpena dute azkenean, eta, noski, euskaraz eginak gaztelera-zko laburpena.

Argitaralpenaren eratzaille eta arduradunek diotenez, oso garrantzitsua ERNAROA aldizkari honen hirugarren alea, Euskal Herriko kultur premiei begira bizi den Bizkaiko Aurrezki Kutzaren Kultur Sailak babesturik kaleratu dela azpimarratzea.

Sarrerako ohar orokor hauek alde batera utzirik, aurkibidean agertzen diren ordena eta era jarraiturik, lan bakoitzaren funtsa eman dezakegu. Angel Ramón de Miguelen “Camino y Comunicaciones en Euskal Herria durante la Epoca Romana” lana dator lehenbizi, bere lizentziaturako Tesiaren aurrerapen gisara; iker-lan hau egiterakoan, bestera ezin bait zitekeen, Araba, Nafarroa eta Ebro inguru guztian kokatutako bide sareetan finkatu da, izan ere, iker-lan

hontan eta lehenago gai honi buruz egindakoetan ikusten denez, erromar denporetarako herrialdearen hegoaldeak zuen dentsitatea ez bait da Bizkaia eta Gipuzkoako lurraldeetan aurkitutako hondakinen dentsitate urriarekin gonbaragarri.

Arturo Rafael Ortega eta Ander Iturbe Machen lanak, beraien aldetik, demografia historikoaren alderdi konkretu bitan kokatzen dira; “Un modelo de población socialmente autofrenada: La Vizcaya oriental en el siglo XVIII” ikertzen du lehenbizikoak, eta “1893: Ultima Epidemia de cólera en Vizcaya” Iturbek, aipatutako izurrite horren ondorio edo berarekin zerikusia duten zenbait alderdi sozioekonomiko ekarriz. Azken hontan, egileak dioenez, “gaiso industrial da”, batez ere higiene baldintza onik ez zegoen auzo industrialen bazterretan bizi den langilegoagan kokatzen bait da; izurrite honek, beste alde batetik, ez zuen gehiegirik eraman, lanean aitzen ematen denez.

Gorago aipatu den Arturo Rafael Ortégaren lanari buruz, oso kontutan hartzekoa, Bizkai ekialdera mugatzen dela, hots, Durangalde eta Lea-Artibai haranetara; dakartzan ondorioetan bat oso azpimarragarria: eskualde hontako bilakeara demografikoa ez datorrela ados Aintzinako Erregimenaren eredu demografikoarekin, izan ere, ondorio gisa ateratzen denez, gutxiago jaiotzen bait dira eta hil ere gutxiago; berandu ezkontzeak, ezkongabeen portzentaia altuak eta emigrazioak, gizarte “autogalgatuaren” ezaugarri bereziak direla emanten dute.

Felipe Ramosen lanak, orain artean gutxi ezagutua den Ermua bezalako herri txikiaren egoera sozioekonomikoari buruz dihardu; lanaren izenburu osoa “Ermua en 1886. Un ejemplo de sociedad tradicional en el País Vasco a fines del siglo XIX”. 1890tik aurrera aldaketak etorri ziren aurretiko bizikerea alde batetara utzirik; aldaketa hauek Deba aldeko harana eta Bizkaiko ekialdea ukitu zuten. Ermuako biztanlegoa hugaltzen hasten da, eta bai ekonomian bai gizarteari buruzkoan, era berrietara irikitzen da XX gizaldiaren lehen herenaldia bukatu baino lehen.

Luis Sanchez Granjel, euskal medizinareneko historialari ezagunak, kultur gaia darabil oraingo hontan: “Revista Euskara (una aportación a la historia vasca ochocentista)”. Gai hau dagoeneko ikuspuntu askotatik aztertua denez, oso zaila da gauza berririk ekartea. Granjelen ondorioek “Asociación Euskara de Navarra-tik” genekizkinak dakartza, izan ere, bere emaitza bait da hizkuntza, kultura eta folkloreaken babes gisara “Euskal jaiak” eta “Lore jokuak”. Juan Graciak bere aldetik, Peñafloredaren “El borracho burlado” lanaren bitartez, talde marginaletan buruz ilustratuen pentsakera eta topikoak ematen dizkigu. Bere lanaren izenburua “La mentalidad ilustrada entre el pauperismo y la marginación social en el País Vasco: La actitud del Conde de Peñafloreda”.

Azkenik, Juan Garmedia Larrañagak “Telesforo Aranzadi eta Etnologia” lana dakar. Aranzadik aztertu eta landutako etnografi alorretatik abiaturik, egileak, une bakoitzean, bere garapen berezia gehitzen dio. Honela, txapel, kapela, eskalaproi eta gerrikoen erabilarari buruzko iruzkin eta oharrak egiten ditu, basarriko lanabes batzuk ere aipatuaz (area, gurdia, laia), eta azkenik zezenketa, haur jolas, dantza eta erraldoi eta buruhandiei buruzko iruzkintxoak dakar.

*Gregorio Arrien Berrojaechevarría*